

Aretxabaleta,
1993ko otsailak 11

Aretxagazeta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA

Santa Ageda tristeia

- Kroaziatik
Atxabaltara
- Haratuzteetako
egitaraua.
- Sailunte.



Txin, txin, txin, txin
mahatsa heldu gabe dago.
Txin, txin, txin, txin
baina helduko da.
Txiribito eta andrea
joan ziren jatera.
Txiribito haserretu
eta bota zuen lapiko.

Gerra aurreko Ihauteriak

Gerra Zibila baino lehen, Atxabaltako Ihauterietako protagonistarik nagusienak Santa Ageda mutilak ziren. Garizumaren hasierako jaiak ziren eta herriak ere parte hartzen zuten.

Jaiak egunean, Eguen Largero egunean, hasten ziren. Egun horretako protagonista txistularia zen. Udalak Txistulariari, herrian eta auzoetan txistua joaz eskean ibiltzeko baimena ematen zion. Eguenean herriko kaleetan ibiltzen zen, baina astelehenetik eguaztenera herriko auzoetatik, honako ibilbidea eginez: Bedoña, Larrino, Korueta, Ázatza, Areantza, Arkarazo, Apotza-Etxebarri, Izurieta eta Galartza.

Eguen arratsaldean, Santa Ageda mutilak txistulariarekin kalera urteten zuten eta Herriko Plazan

aureskua dantzatu. Gero, txistulariak alaitutako dantza herrikoia egiten zen, Angelus ordurarte.

Ihauterietako hurrengo eguna domeka izaten zen. Domekan herriko jendeak kukumarroz jaten zen, erropazaharrekin edo andreen kamisioekin, eta denak aurpegia kortxoz pintatuta.

Domekako ekintza ofiziala, Santa Ageda mutilak Herriko Plazan egiten zuten aureskua izaten zen, eta bukatzeko txistulariak edo gramolak alaitutako dantza.

Santa Ageda mutilentzako egun nagusia martitzena zen. Goizean, kamisoi zuriez, txino dantza egiten zuten. Txino dantzan emakumearen eguneroko usuario eta gustokak antzezten ziren. Bazkal ostean, Santa Ageda mu-

tilen bat ere ikus zitekeen astoren baten gainean urtean zehar herrian gertatutakoak bertsotan kantetan.

Festa bukatzeko, Santa Ageda mutilak aureskua dantzatzen zuten.


Atxabaltan 1936. urtean ospatu ziren azkenengo ihauteriak, gero berriro, 40 urte beranduago, 1976an berreskuratzeko.

**J.A. Lazkano,
Loramendi
Dantza taldeko
lehendakaria**

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tlnoa: 79 01 05 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-kontseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Inaxio Garro, Jabier Marcos
Publizitate eta erredakzio arduraduna: Goretti Ayastuy eta Ana Eriz **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Dabid Agirre, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, Jon Antxia, Julen Zuazaberrita, Beinke, Udala. **Inprimategia:** Gertu Koop E. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

Ospatzen duzu San Balentin eguna?



Arantxa Marrodan
(Langilea)

Ez, lanean pasetan dut egun hori loradenda daukat eta. Nik ez dut ezer berezirik egingo. Lehen lorak jaso izan ditut, orain ez.



Jose Angel Uribebarria
(Langilea)

Noizean behin bai. Afariren bat edo egiten dugu eta segun, erregauren bat ere bai bazuetan.



Arantxa Mujika
(Etxekoandrea)

Ez, ez dut espezialki ospatzen. Urteak pasatu dira eta orain ez zait egun berezia iruditzen. Ez dut erregalirik egiten eta ezta jasoten ere.



Gonzalo Egurza
(Taxista)

Egun horretan paradan egoten gara gu taxistok. Guk ez dugu ezer berezirik egiten, hori beste jendearendako da.

KARTAK

Atxabaltako presoen berriak

Oraintsu bete berri denean KEPA URRAREN atxilotaren lehen urtemuga, basatiki torturatu zuten Guardia Zibilak ez dira oraino epaituak izan, nahiz eta prozesaturik egon, bai Kepak berak eginiko deklarazioengatik, eta baita Basurtoko erizain batek eta bisitatu zuen medikuak eskeinitako testigantzari esker. Esan beharra dago, torturaren aurkako zenbait nazio arteko erakundek, euren iazko txostenetan Keparen kasua aipatzeko asmotan dabiltzala.

Esanguratsua da, bestalde, euren burua bakearen alde eta indarkeriaren aurkako bezala

aurkezten duen zenbait taldek, hau eta antzeko kasuak saltzearen pausorik txikiena ere ez ematea, eta beraien ahotsa abertzaleen aurka baino entzutea, honela estatu biolentzia babestuz.

Momentu batean, eta epaiketa batean lekukoarena egin behar duela eta, Alcalara ekarria izan da Kepa Puerto de Sta. Mariako espetxetik. Azken honetan, 28 eguneko gose greba gogorra egin behar izan zuen asko ez duela, edozein presok dituen eskubideekiko errespetua eskatuz. Adibidez, urtebete luze honetan, ezin

izan ditu ez emaztea ez alaba besarkatu, "vis a vis" delakoa debekaturik duelako. Egunean 20 ordu pasatzen ditu bere zeldan isolaturik. Dena den, bere azken albisteen arabera, animoso aurkitzen da, eta zorionak eta eskerrak bidaltzen dizkie, bai egunero presoan alde borrokan dihardutenei, eta baita azken gabonetako kanpainan modu batera edo bestera lagundu zuten guztiei. Gu ere bera zoriondu beharrean aurkitzen gara, hilaren 13an bere eguna dela eta. ZORIONAK!!

IÑAKI ITURRIri dago-kionean, Ocaña-1 espetxean jarraitzen du, egu-

nean 22 orduz isolaturik, eta bizi baldintzek, egunez egun txarragora egiten dutelarik. Janariaren kalitatea, izugarri jeitsi egi da azken hilebeteotan, eta lagunen bisitaldiak ere, gero eta oztopo gehiago jasaten ari dira: joango direnen izenak astebete lehenago eman eta gero telefonoz baieztatuta behar. Beraz azken orduko ezusteren bat dela eta, izen emandakoak joaterik ez badu, aste horretan bisitaldi barik gelditzeko arriskuak.

Aretxabaletako Amnistiaren Aldeko Komitea



San Blas eguna Haratuzteak 93

Otsailaren 3an San Blas eguna ospaketan da aspalditik Euskal Herri osoan zehar eta baita Atxablatan ere.

Ohitura da egun horretan San Blas ermitara igo eta eroaten diren janariak bedeinkatzea. Bertan dagoen zuhaitzeko arramatxoak hartu eta hauek ere bedeinkatu egiten dira.

San Blasen bedeinkazioak katarroak osaketako izaten dira. Beraz aurten, horrenbeste katarro dagoela eta, ondo etorriko ziren bertan botatako bedeinkazioak.

Aurtengo San Blas egunean jende asko joan zen Atxablatatik ermitara, bakoitzak bere motxilatoa aldean eroanez. Motxiletan janari desberdinak eroan ziren, horrein artean egun horretakoak diren San Blas tortak.

Eguazten horretan Meza goizeko 11etan izan zen. Meza hau kanpoan eman zen, jende asko zegoelako. Ikastolatik, Mojetatik eta Almenetik ere joan ziren euren motxila eta guzti. Bateon batzuk, zelairik zela joan eta zikin-zikin eginda heldu ziren gora.

Aurtengoan eguraldiak lagundu zuelako edo ohitura ez galtzearren, jendeak urteroko bisita egin zion San Blasi. Ea ba horrela aurtengo katarroak guztiz osatzen diren.

San Blas egunarekin jarraituz, Eguzki Alde Elkartek, urtero moduan, aurten ere euren patroia eguna ospatu zuten. Ospakizuna goizean goiz hasi zen eta gero luntxa izan zuten Elkarteak.

Badatoz aurtengo haratuzteak ere eta jendea badabil euren jantziak gertaketan. Haratuzte eguna otsailaren 21ean, domekan, izango da eta honako hau da egitaraua:

Goizeko 10etan kaleetan zehar txistulariekin diana.

Goizeko 11etan squah txapelketako finala "ihauterietako saria".

Goizeko 12etan "Gazteleku" txarangaren etorrera eta jarraian Herriko kaleetan zehar kalejira.

Eguerdiko 12etatik ordu 2etara kuadrilen desfilea eta ordu 1etan Loramendi Taldeak "Txino dantza" eskainiko du Erdiko Kalean.

Arratsaldeko 7etan Herriko Plazan 1993ko Santa Agedako mutilek

aureskua eskainiko digute eta gero aurtengo kukumarro lehiaketaren sari banaketa.

Arratsaldeko 8etan eta gabeko 10.30etatik 12.30ak arte Herriko Plazan dantzaldia.

Otsailaren 23an martizenean ere ospatuko dira ihauteriak eta hau da programa:

Arratsaldeko 3etan "Incansables" txarangari ongi etorria eta jarraian kalejira.

Arratsaldeko 5.30etan Herriko Plazan Japoniar bonben botatzea.

Arratsaldeko 6.30etan Buruhaundiak.

Gabeko 10.30etan Txinoaren erretzea, komitibak Mitarte Plazatik urtengo du Herriko Plazaruntz. Lutoz jantzita eta kandlekin joatea gomendatzen da.



Mediateka Proiektuaren aurkezpena

Hezibide Elkarteko egoitzan astelehenean izandako prentsaurrekoan, Elkarte honek mediateka proiektua aurkeztu zuen.

Aurkezpenean, Eusko Jaurlaritzako ordezkaria Jose Mari Muñoa, Bordeleko Unibertsitateko Réne La Borderie eta Gilbert Gonzalez; eta Hezibideko Felix Ormaetxea eta Ana Ugaldek parte hartu zuten.

Proiektu hau, Euskadiko eta Akitaniako Gobernuek sinatutako hitzarmenaren barruan kokatzen da.

Proiektu honek, Hezibideko eskoletan eroaten dabilen barrizta-

tze pedagogikoan kokatzen da.

"Mediateka eskolako bizimoduaren ardatza izatea gura dugu. Batez ere, autoikaskuntzarako leku aproposa izatea."

Mediateka elkarteko 6 ikastetxetan kokatuko da. Mediateka eskolako bizitzan ardatz bihurtu gura dute.

La Borderieren esanetan "proiektu hau barrikuntza handia da, ez da Bordelen egiten dabiltzan kopia."

Aurrekontua 60 milioia da eta 10 milioi jaso ditu Euskadiko eta Akitaniako Gobernuetatik.

Antzerki Topaketak

Azkenengo Aretxagazetan aste honetako programa azaldu baguenen, datorren astean Kurtzebarri Eskolan izango den egitarauaren berri emango dizuegu.

Otsailak 17

8. maila: Hoteleko pasadizuak, antzerkia.

1go maila: Tangoa, dantza.

7. maila: Bremengo musikariak, antzerkia.

8. maila: Anbulategiko gora-beherak, antzerkia.

Otsailak 18

5. maila: Errrege Zoria, antzerkia.

5. maila: Gazteluko mamua, antzerkia.

2. maila: Geure bertsoak, bertsoak.

8. maila: Ama begira zazu, antzerkia.

Animatu zaitezte eta etorri Kurtzebarri Eskolan antolatu diren antzerki horiek ikustera. Gazte hauek lan asko egin dute guzti hau prestatzen.

Merezi du, benetan, horrelako ekintzetan parte hartzeak.

- Arrasateko helduen heziketa zentruan alfabetizatze ikastaroa antolatuko da. Debalde izango da. Izena eman gura dutenak Udaletxera jo, enplegu teknikariarengana, hil honen 28a baino lehen.

- Datorren otsailaren 20an, eguerdiko 12etan, Udaletxeko aretoan Aretxagazeta Elkartearen batzar orokorra izango da.

- 50.000 pezeta dituen sobre bat galdu da, Kutxa zaharretik barrirako bidean. Topatu duenak deitu dezala telefono honetara: 79 00 27.

- Azkeneko zenbakiko zuzenketa: Lucio Garay enpresak 40 langile ditu.



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



MIREN & ZURINE
BITXIEN DISEINUA

BITXITEGIA

Otalora kalea, 4 - Tlfnoa: 77 13 57
ARETXABALETA



Iturbe fabrika botata

Urtarrilaren 27, 28 eta 29an Iturbe lantegia bota zen. Udalekoak momentu honetan aukera desberdinarik aztertzen dabilta. Jende ugari hurreratu zen egun hauetan lantegia zela botaten zuten ikustera. Jendeak denbora pasa ona izan zuen.

Sailuenteko Ermitaren barriztea

Berehala, Sailuenteko (San Blas) ermitaren barrizte lanak hasiko dira.

Duda barik ermitaren teilatua, hormak eta inguruak konpoketa baten beharrea daude.

Ermita barrizte-

rakoan, oraingo egitura ez da aldatuko, konpondu bakarrik egingo da.

Aurrekontua 7 milioi ingurukoa da, Foru Aldundiak, Udalak eta Elizak finantziatuko dute.

Kurtzebarri Eskolako atzeko patioa itxiko da

Azkenaldi honetan, Kurtzebarri Eskolan apurketa ugari izan dira. Honela, kristalak, pertsiak, zuhaitzak, bankuak eta abar agertu dira apurtuta. Gainera Eskolako hormetan pintada asko azaldu dira.

Udaleko Gobernu Batzordeak, ikastetxeko zuzendaritzarekin harremanetan, atzekaldeko patioa eskola kanpoko orduetan ixtea erabaki du. Patio honetan ate bat jarriko da, erasoak gutxitu daitezkeen.

Istripua bariantean

Zapatu goizaldean bariantean izandako istripuan pertsona bat hil zen eta beste hiru zauritu. Ezagutzen ez diren arrazoiengatik, Yamaha

motor batek kotxe baten kontra jo zuen. Txokearen ondorioz motorrak hartu eta bere gidaria, Carlos R. F. 27 urteko arrasatearra hil zen.



NOVEDADES

FELI

MODAN DAGOEN GUZTIA!

Iparragirre, 4
Tfnoa: 79 21 24
ARETXABAETA

**BENGOA
FERRETERIA**

*Menaje eta
etxerako
danetik*

Herriko Plazan
Tfnoa: 79 29 12

SEAT



**GARAGE
OSKAR**

Basabe poligonoa
A - 2 - 4
Tfnoa: 79 98 74



LENIZ
LIBURUDENDA

**HERRIKO
PLAZA**

TFNOA:
791616

Maria Agirre eta Osane Ayastuy, atxalbaltarrak Yugoslavia ohian izan dira, Euskadiko Gazteri Kontseiluak antolatutako kanpainaren bitartez. Hango errefuxiatu kanpamenduen egoera ezagutzeko aukera izan dute. Kanpaina berean joan arren, bideberdinak jarraitu dituzte, eurek kontatu digutenez.



haundiak dira. Batzuek kalefazioa eta ur beroa ere badute".

Harrera ona izan dute eta diotenez bertakoak oso esku zabalak izan dira joan direnekin.

Errefuxiatuekin euki dituzten harremanetan, hauek ez dute arazoaren konponbidea epe motzera ikusten, eta kanpoko erakundeek lana dudan jarten dute.

"Laguntza ailegetan da beste herrialde batzuetatik baina, adibidez, ONUren lana ez dute begi onez ikusten, serbiarren alde daudela uste dute. Euren herrietan gertatzen dena interesetan zaie eta desietan daude bueltatzeko. Etxeak ikusi gura dituzte eta bertan geratu".

Kanpotik bidaltzen diren laguntzak sarritan almazenetan geratzen ei dira. Ez dago banaketa egiteko egiturarik.

Gerra bizi izan ez arren, izan dute bertako biolentziaren berri. Chetniksei buruzko astakeriak entzun dituzte eta baita musulmani buruzkoak ere. "Alde bietatik dago biolentzia haundia, historia desberdinak entzun genituen. Adibidez, herri batean Chetniks sartu ei ziren eta bertako emakume eta gizon guztiak hil ei zituzten, lehenengo emakumeak bortxatuz".

Egoera desberdinak bizi izan dituzte, baina esperientzia ona izan da.

Croacia eta Bosniatik bueltan

Maria abenduaren 12an heldu zen Atxalbaltara, hilabete t'ardi eginez eta Osane, egun bat lehenago urten zuen harantz, eta urtarrilaren 6an bueltatu zen.

Mariak, 15 egunegin ditu Croaciako Split aurrereko irla batean, Supeta herriko kanpamenduan. Gero beste talde batekin, Croaciako beste hiru kanpamendutan egon da eta Bosnia-Herzegovinako 7 herritan. Bestalde, Osane, Split aurreko irlan egon da, Sutiva herriko kanpamenduan.

Han errefuxiatuen eguneroko bizimodua bizi izan dute. Euren egin beharra umekin aktibitate desberdinak antolatzea izan da.

"Goizean, umekin pare bat ordu egoten gi-

nen jolasak eta aktibitateak egiten eta arratsaldean ostera, beste tailer eta jolasak egiten genituen. Hizkuntza desberdina zen, baina harreman onak izan genituen, oso pertsona zabalak dira".

Ezuste haundia hartu zuten kanpamendura ailegatu zirenean.

"Guk bezalako itxura zuten. Leku berean bizi ziren, euren herriko arazoengatik. Familia bakoitzak gela bat zuen, independente bizi ziren".

Hala ere, familia osoak ez zituzten ezagutu. Normalean, emakumezkoak umekin batera zeuden.

Croacian gerra egoera ez zuten zuzenean bizi. Mariak alde

haundia ikusi du Croacia eta Bosniaren artean.

"Croacian ez zen gerra igartzen. Sarajevo inguruan dago kokatuta gehienbat. Beste tokietan ez da hainbeste igartzen, Ertaroko gerra dirudi. Bosnian egon nintzenean aldatetak ikusi nituen, egoera askoz txarragoa zen. Herriak, militarrez josita zeuden egun osoan, eta kontrol ugari pasatu nituen".

Bestalde, eurak egon ziren kanpamenduen egoera ona zen. "Croaciako errefuxiatu kanpamenduak kostaldean daude kokatuta. Lehen herri turistikoak zirenez, oso ondo prestatuta daude. Errefuxiatu kanpamenduak hotel



Santa Ageda mutila galdu dugu

Atxabaltako ohituren tartean, inportanteena, ezagunena Santa Ageda mutilena da.

Urtero, "soldadutzara" joango diren gazteek, Santa Ageda bezperan urteten dute, baserri baserri kantetan hainezaguna den kantua. Hurrengo egunean herrian zehar ibiltzeko. Baina aurten, zoritxarrez, aldaketa asko izan dira egun hauetan.

Egun alai hauek, benetan triste bihurtu dira. Santa Ageda eguneko goizaldean, Jon Antxia, 18 urteko Santa Ageda mutila, gure artetik joan zitzaigun.

Santa Ageda bezperan, goizetik, Atxabaltako auzo guztietatik Santa Ageda mutilak eskean ibili ziren. Ohiturari jarraituz, goizean

Larrino, Azatza, Korueta, Areantza eta Arkarazo auzoetan ibili ziren. Arratsaldean, Izurieta, Galartza, Apotza-etxeberri eta Oro auzoetatik.

Jon, oso ezaguna eta maitatua zen herrian.

Santa Ageda eguna

Gau horretan, istripu batean Jon joan zitzaigun. Jon, oso ezaguna eta maitatua zen herrian. Kirol za-



lea, U.D.A taldeko futbolaria errejonalean eta Murruxio Taldeko piraguisismo saileko arduraduna.

Horrela aldizkari hone-tako 19. zenbakian piraguisismo munduaren berri emateko gurekin izan genuen. Gainera, Santa Ageda bezperan gure argazkiak ateratzeko orduan bere laguntza ere eskaini zigun. Beti edonori laguntzeko prest zegoen.

Notiziaren berri izteaz bat, herriko giroa zeharo aldatu zen. Herriko zaharrenek ere ez ei dute horrelako egun tristerik eza-gutu Santa Ageda egune-tan. Denok, gazteok, hel-duok ezin genuen sinestu.

Horrela, eguakotxean, kintoek ez zuten kalera urten eta egun horretako ekintza guztiak bertan behera utzi ziren.

Zapatuan, berriz, Joni azkeneko agurra emateko jendetza haundia batu zen hileta orduan, arratsalde-



ko Setan, elizara.

Domekan omenaldia

Kintoak domeka goizean 12etan mezatarajoa ziren, herrian erabiltzen duten ohizko jantziekin, baina txapel beltzarekin. Arratsaldean, Joni eta

Eguko- txean, otsai- laren 12an, Santa Ageda mutilek kalean ba- tuko dute.

Ayaperi omenaldia eskaini zioten. Hasierako kalejira isiltasunean egin zuten, plazara txalapartaren soinuarekin sartu ziren. Gero, desafioa, banakoa eta agurrak dantzatu zituzten txapel beltzak erdian jarrita, bi kinto horien omenez.

Eguakotxean, otsailaren 12an, goizean Santa Ageda mutilek herrian zehar eskean urtengo dute.

Ohiturarekin jarraituz, domekan eta haratuzte egunean plazan dantza-tuko dute, betiko moduan.

Santa Ageda mutilek geratzen diren egun haue-tan, ahaleginduko dira normaltasunez ospatzen. Jonen gurasoek ere ospakizun hori aurrera eramateko desioa azaldu dute.

Orrialde hauetatik, bat egiten dugu familiak eta Santa Ageda mutilek bizi duten minarekin.



Egun hauetan egina dugu
Jon zurekin ametsetan
oraindik ere joan zarela
ez dugu uste benetan.
Zure lekua ez du beteko
inork kuadrila honetan
" Anboto" beti izango zara
lagun hauen bihotzetan.

Nahiz eta jadanik ezin zaitugun
aurkitu gure tartean
Jon zaude ziur zure lagunak
bizi garen bitartean,
gogor jarraitu behar dugula
lanean borondatean
zuk zenituen amets guztiak
egi bihurtu artean.

Bere lagunak eta
Santa Ageda mutilak





- UDA elkarteko futbol taldeek ez zuten partidurik jokatu joan zen asteburuan Jon Antxia hil zelako.

Pelota liga hasita dago

Aurreko asteburuan pelota liga hasi zen, junior mailan atxabaltarrek parte hartuz.

Eskuz binaka, Iturrigori frontoian, Herrasti anaiek Zaramaga Arabako taldeko Perez-Iribarren bikoteari irabazi zioten 22-8 emaitzarekin.

Banaka, Aoizen ere atxabaltarrek irabazi zuten.

Bertan, Atxabaltako ordezkariak Nafarroako pelotariari irabazi zion 9-18 emaitza lortuz.

Liga horretan Euskadiko 14 talde onenek parte hartuko dute.

Liga 3 taldetan banatuko da.

Atxabaltarrek parte hartzen duten taldean beste talde hauek ere ba-

daude:

Arabako Zaramaga, Nafarroako Aoiz, Errioxako San Kosme eta Bizkaiko Arkuepe.

Liga bi bueltatara izango da, talde bakoitzeko lehenengoak sailkatuz.

Sailkatuko den laugarren taldea erdi finalerako 3 taldetatik 2. sailkatua izango da.

- Goio Arrieta gazteen oho-rezko ligako entrenatzaile barria dugu.

- UDA Elkartek otsailaren 13an Batzar Berezia izango du. Gai bakarra eztabai-datuko da: futbol zelai barria.

Txirrindularitza

Dorletako Ama Txirrindulari eskolaren aurkezpena, datorren zapatuan, otsailaren 20an, goizeko 10etan Dorletako Santutegian izango da. Ama birjinari lora eskeintza egingo zaio.

Ondoren, argazkiak aterako dira eta Gure Ametsa jatetxean eguar-dian luntxa izango da.

Saskibaloia

Eskolarteko saskibaloia txapelketan, asteburu honetan honako emaitzak lortu dira:

- Infantiletan, mutilak: Antzuola, 24-Txikia kurtze, 81.

- Infantiletan, neskak: Kurtze hamaika, 55- Antzuola, 1.

Euskalduna, 13- Kurtze gaztea, 36.

Diapositibak

Hilaren zortzian hasi eta hamabirarte Zaramaga zinemaren arratsaldeko 7,30etan, mendiari buruzko diapositibak ikusteko aukera izango dugu.

Diapositiba emanaldi horien aurkezlea Felipe Uriarte mendizale ezaguna izango da. Ez ezazue aukera hau galdu.



Sailuente-San Blas

Igaro berri dugun otsaileko lehen astean egun bat aitatu gura genuke, Atxabaltan benetan eszaguna: San Blas eguna. Jakin dugunez berritze lanak hastera doaz eta aitzaki horrekin jokatzuz, atxabaltarroi interesatuko zaizkizuen bitxikeria batzuk azaldu gura genituzke.

Izen bi hauekin (Sailuente-San Blas) ezagutzen dugu, erreka bezaldetik tontortxo baten kokaturiko basilizatoa. Behar bada izen zaharrena SAILUENTE izango da (SANT LAURENTIS-SAN LORENZO), gaur egun eskuineko aldean kokaturiko saildua. Bestaldean, ezkerreko aldean, SAN BLAS dugu, eta erdiko alda-

rean ermittarekin zer ikusirik ez duen saildua bat, SAN JUAN; irudi hau, OROko San Juan ermittan zegoen eta XIX. mendean frantsesek ermitta erre zutenean, Sailuentera ekarri zuten. Aipatzekoak dira lurtean ikus daitezkeen lau harlauzaluze; arkeologoek esan digutenez, auzoko baserrietako aintzinako hilioiak izan daitezke.

Beste irudi bat ere bazegoen, ANDRAMARI bat; irudi hau erromanikoa da, gaur egun Atxabaltako Parrokian dagoena. Arkitektura Artistikoa kontutan hartzen badugu esan dezakegu ermittaren portada, erromaniko berantorra dela, oso sinplea. Bestalde, bere fabrika

(obra/lana) XVIII/XIX. mendekoa da (berrizketa asko izan du).

Herriko zaharrendigandik jaso dugunez, SAN LORENZOrekin, lehen, errokatibak egiten ziren.

Oraindik sakristian ikus daitezkeen andabazuetan ekartzen zuten Andramari Zuibiraino, (Eliza ondoko zubia) eta bertatik hasita, prozesio antzeko bat osatzen zen. Eskoriatzako auzo batean ere, Marinen, lehortea zegoenean San Lorenzo eramaten zuten Santa Lutzia ermittatik eliza nagusira eta aste bete inguru egin ondoren, berriro lehengo tokira. Esaten dutenez eta bertara hurrerata ikus daiteke- "esku baten sua

eta bestien ura dauko".

Beste bitxikeria bat ere jaso dugu: Alboko baserrian bizirik direnen arbasoren batek, bere egoera ekonomiko urria indartzeko, saildua hartu (San Blas edo besteren bat) eta baserri baserri, eta herriz herri ibiltzen ez diren diru apurren bat eskuratuz. "Sailuenteko Padarra" esaten zitzaien.

SAN BLAS bera, gure bailara osoan arrakasta handiko saildua dugu; "burutiberako", ezta rriko min, ezta eta abarrentzat saildua aproposa.

Oraindik "doministiku" egiten denean entzun daitezkeen erantzun jatorra "San Blas!" da.

Borondatezko lanak



J.J. Aretxaga

Lana egiten duen jendeak gustoa ematen du. Borondatezko lana, esan gura nuen. Gure herrian, zorionez, badago borondatezko lana egiteko aukerarik eta aukera horiek beteten dituen jendea. Adibidez, etxetik hasteko, Aretxagazeta honetan bost laguntzaile barri izango ditugu hemendik aurrera, euskaltegitik etorri direnak. Euskaltegiko ikasleak. **Txema Aragones, Resu Velasco, Jesus Mari Torres, A. Galdaera** eta **Elena Vazquezek** aldizkari honetako "afizioak" atalaren ardura hartuko dute. Gure herriko elkarte gastronomikoak ez dira lanerako sortutakoak, baina horiek ere ematen dute euren lana. Eta hori ere bateronbatek egin behar. **Jose Angel Lazkano** izango da hemendik aurrera Eguzki-alde elkarteko lehendakaria. **Txomin Landaluze**, barriz, Apotzagako Auzo-etxe elkarteko lehendakaria. Muru-aldekoa, **Fernando**

Lasagabaster. Hibai-gain elkartean **Joakin Urteaga** izango da. Lau elkarte hauek orain aldatu barri dituzte euren lehendakariak.

Badira herrian gastronomikoak ez diren elkarteak, askoz lan gehiago eskatzen dutenak. Hauetako batzuren lana errazteko borondatezko dirulaguntzak ez dira txarto etorten. Horixe egin du **Juan Arregik**, orain dela gutxi herrian omendua izan zen enpresari atxabaltarrak. 500.000 pezeta eman ditu Zaharren Elkartea, UDA, Ikastola eta Abesbatzaren artean banatzeko, zati bardineta. Borondatezko lana eta borondatezko dirua. Bakoitzak ahal duenetik ematen du.

Karnabal domekan, betiko Txino Dantzaz aparte, beste berrestreno bat izango dugu. Herriko txistulariek "Aretxabaletako melodia herrikoia" pieza joko dute, **Demetrio Iriartek** 1972an idatzitakoa. Demetrio bera gaisorik dago. Txagorritxuko ospitalean dago izan duen atxutxoia ondoen errekuperetako. Musikarekin jarraituaz, akordeoilariak aitatu behar ditut. **Juan Jose Oroben-goaren** akordeoi ikasleekin banda bat osatu gura dute. Arazoa lokala zen. Une honetan lokalaren gaia behintzat konponduta dago. Kurtzebarri eskolako aretoan ensaiatuko dute. Denera 22 ikasle dira.

KOMIKIA

MICKY-PAUL:



KIDE

ZURE PRESENTZIA
AGURTUA IZAN DELA SOMATEAN
LEPOA ESTUTU ETA BIHOTZA MINDU ZAIT

BAINA BADAKIT ZABUZZALA
ZERU ILUNEAN BARRENA
IZAR BAT BAIZINTEAN
BIDAIAUAZ NORABAIT...

682

13 ZAPATUA

- Gaueko 10etan Zaraia zineman : **Instinto Basico** filmea.
- **U.D.Ako** Batzar Orokorra.
- **Uratz-Alde-ko** Batzar Orokorra.

U.D.A - Aloña Mendi K.E.

- Zaraia zineman arratsaldeko 4.30etan **Peter Pan** filmea eta 7retan **Instinto Basico**.
- Arratsaldeko 7retan **1993ko kintoek** dantzatuko dute Plazan.

Asier Güenetxea eta Krespo txirrindulari atxabaltarrak izango dira.

20 ZAPATUA

- Gaueko 10etan **Jamon Jamon** filmea Zaraia zineman.

- **Aretxagazeta** al-dizkariko Batzar Orokorra.

- Arratsaldeko 7retan **1993ko kintoek** dantzatuko dute, Herriko Plazan.

- Zaraia Mendi Taldearen urteera: **Malkorra**.

23 ASTEARTEA

- **Ihauteriak** (ikus egitarau berezia).

14 DOMEKA

- Murruxiko Mendi Elkartearen urteera: **Elo-rrera Haitza**.
- Futbol partidua:

19 EGUAKOTXA

- Arratsaldeko 7retan Dorletako Ama txirrindulari Taldeak, hitzaldiak emango ditu. Bertan **Gorrotxategi** (Gipuzkoako Txirrindulari Federazioko medikua) eta **Xabier Lazpiur**,

21 DOMEKA

- **Ihauteriak** (ikus egitarau berezia).



ARETXAZOKA

Lana

- Neska bat gertu etxeko lanak egiteko, umeak edo nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 85 64 (Maika).

- O.H.O ko klase partikularrak ematen dira. Tfnoa: 79 68 18.

Lana

- Amerikar bat ingeleseko klaseak emateko prest. Goi mailako irakurketa eta idazketa. Ekonomi arloan esperientziaduna. Tfnoa: 79 20 64.

- Larunbat goizetan ingeleseko klaseak ematen dira. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 01 17.

Salerosketak

- Garaje bat salgai Iparragirre kalean. Tfnoa: 79 20 48.

- Pisu bat alokatzeko dago. Interesatuok telefono honetara deitu: 79 40 19

- Pisu bat erosi gura nuke Atxabaltan. Tfnoa: 79 17 04.

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

PUBLIZITATEA

DON BIDEO
BIDEO DENDA

Loramendi, 10
Tfnoa: 79 81 78

ZARIA TABERNA
GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA
ANAIK

BASABE
JATETXEA

Menu eta afariak
industrialdea
ARETXABALETA
Tnoa: 77 07 94
79 91 84

ITURGINTZA

J.J

Tfnoak: 79 07 34
79 31 87

ARLUTZ
TABERNA

Mitarte, 16 ARETXABALETA Tnoa: 79 32 34



HAIZEA
AKEITEGIA

Mitarte Kalea, Z/G
Tnoa: 79 85 57

EXPRESS
AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16
Tnoa: 79 23 43

Zatoz ezagutzera
ZUHAITZ
jatetxea!



MITARTE
GARAI
JATETXEA

ARIENTZA
☎ 79 17 51

JAUREGI
OKINDEGIA
(Panaderia)

Otalora, 10
Tnoa: 79 57 47

ANDONI ALTUBE

ELEKTRA
INSTALAKUNTZAK

Durana, 36
Tnoa: 79 10 60
ARETXABALETA


I O S U
URDAITEGIA

MITARTE, 1 eta
GORBEA, 8

BENGOA
Mertzeria

Durana, 13
☎ 79 21 00
ARETXABALETA

Optica



Loramendi, 10
Tfnoa: 79 98 21

IBARRA ESTANKOA

Tabakoa eta
ikas materiala

Bizkaia, 3
Tfnoa: 79 23 77

"HERRASTI"
AKEITA ETXEA

Aralar Kalea, 7
Tfnoa: 79 32 83

NERIAN

Loradenda

Otalora, 14 behea
Tfnoa: 79 70 66

Eutsi iezaiozu
hamahiruari.

Edo zuk nahi
izanez gero...



Eperako Aurrezkia

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA